



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

## **ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

**2012**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua.**

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga hori honako ordenantza fiskal honetan xedatutakoaren arabera eskatuko du.

#### **2. artikulua.**

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

### **II. ZERGA EGITATEA**

#### **3. artikulua.**

Hirigintzako obretarako lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra udalerriaren barruan egitea da zerga egitate, lizentzia hori jaso nahiz jaso ez, baldin eta lizentzia ematea udal honi badagokio, eta, era berean, jakinarazitako jarduketari eta adierazpen arduratsuari dagokienez, hartzailea Udala bada.

#### **4. artikulua.**

Besteak beste, honako hauek zergapeko egintzak dira:

- 1.- Mota guztietako eraikin edo instalazio berriak egiteko obrak.
- 2.- Mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak
- 3.- Egitura ukitzen duten aldatetak edo berrikuntza obrak egitea, mota guztietako eraikin edo instalazioetan.
- 4.- Kanpoko itxura aldatzen duten obrak egitea, mota guztietako eraikin edo instalazioetan.
- 5.- Eraikinaren barruko taxuera aldatzen duten obrak, edozein dela ere eraikinaren erabilera.
- 6.- Behin behineko izaeraz egin behar diren obrak, Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 36 artikulak aipatzen dituenak.
- 7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
- 8.- Lur mugimenduak, besteak beste lur erauzketak, hondeaketak eta betelanak, salbu eta horrelako lanak urbanizazio edo eraikuntza proiektu onetsi edo baimenduetan zehazturik eta programaturik daudenean.
- 9.- Eraikuntzak erraustea, hur-hurreko aurriaren deklarazioa dutenak izan ezik.
- 10.- Lurpeko instalazioak: aparkalekuak, industria, merkataritza edo lanbide jardueretarako instalazioak, zerbitzu publikoenak, edo lurrazpiari ematen zaion beste edozein erabilera dutenak.
- 11.- Propaganda kartelak herri bideetatik ikusteko eran jartzea.
- 12.- Ahalmen ekonomikoa agerian jartzen duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten obra, eraikuntza eta instalazio guztiak, baldin eta obra lizentzia edo hirigintzako lizentzia behar badute.

#### **5. artikulua.**

Ez dira egongo zergapean udal honen jabariko higiezinetan egiten diren eraikuntza, obra eta instalazioak, baldin eta obraren jabea Udala bera bada.

### **III. SALBUESPENAK**

#### **6. artikulua.**

- 1.- Zerga ordaindu beharretik salbuetsita daude Estatuaren, autonomia erkidegoen edo Bizkaiko Lurralde Historikoen edo toki erakundeen jabetzako era guztietako eraikuntza, instalazio edo obrak, baldin eta horri lotuta badaude, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko, biztanleguneen saneamendu eta horien hondakin uren saneamendurako izango badira; hori horrela da kudeaketa erakunde autonomiadunek egin arren, hala inbertsio berriko obrak direnean nola artapenekoak direnean.
- 2.- Eliza Katolikoa, Estatuak eta Egoitza Santuak gai ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3an eginiko Itunean ezarritako moduan (2001eko ekainaren 5eko Aginduaren arabera; haren bidez argitzen da nola sartu den Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Estatu Espainiarrak eta Egoitza Santuak gai ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3an eginiko Itunaren IV. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran).

### **IV. SUBJEKTU PASIBOAK**



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

**7. artikulua.**

1. Ondorengoak dira, zergadun moduan, zerga honen subjektu pasiboak: Martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan aipatutako pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, eraikuntza, instalazio edo obraren jabe direnak, haiek dauden higiezinaren jabe izan zein ez.
2. Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituena da.
3. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, beraren ordezkio subjektu pasibo izango dira eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia eskatzen dutenak edo hura egiten dutenak.
4. Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga-kuotaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari.

**V. ZERGA OINARRIA**

**8. artikulua.**

1. Zerga oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da; benetako kostua hura burutzeko kostua da.  
Ez dira sartuko zerga oinarrian ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak, ez prezio publikoak, ez eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gaineko gainerako toki prestazioak, ez profesionalen ogibidesariak, ez kontratariaren industri mozkina, ez burutzapen materialaz kanpoko gainerako kontzeptu guztiak.
2. Zerga oinarria, udal lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio edo obraren kasuetan, Udal Administrazioak ezarritakoa izango da.

**VI. ZERGA KUOTA**

**9. artikulua.**

Zerga kuota kalkulatzeko, zerga oinarriari karga tasa aplikatuko zaio, karga tasa %5 delarik.

**10. artikulua.**

Hobari hauek ezarriko zaizkie hurrengo eraikuntza, instalazio eta obrei:

- a) %75eko hobaria gizarte-inguruabar, kultur inguruabar edo inguruabar historiko-artistiko bereziak direla eta edo enplegua edo txandakatzeko alojamendu iraunkorra sustatu beharra dela eta interes berezikotzat edo udalerriaren onurarakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obretarako.
- b) % 90eko hobaria, interes berezikotzat edo udal onuragarritzat jotzen bada edozein eraikuntza, instalazio edo obra, eraikinetako kanpoko fatxadak osorik birgaitzea dakartenean eta herri bidera ematen dutenean. Eraikuntza, instalazio edo obra horiek obra handiago baten barruan sartzen badira, kanpoko fatxada osorik birgaitzea dakarren eraikuntzari, instalazioari edo obrari aplikatuko zaio hobaria soilik. Bestalde, ondorio horietarako ez da fatxadatzat hartzen eraikinaren gainaldea.
- c) % 60ko hobaria, udalaren interes berezitzat edo onuragarritzat jotzen bada,
  - Kultur Ondarearen Legeak edo arau subsidiarioek babesturiko eraikinetako elementu bereziak artatzeko eta mantentzeko obrak.
  - Baserriak eta baserriei atxikiriko instalazioak birgaitzeko obrak, nekazaritzako, basoko edo abeltzaintzako ustiategia denean eta famili unitatearen diru-sarrerara bakarria ustiategi horretakoa bada oro har. Horretarako, erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiaren benetako neurriak gutxienez N.L.U. bat duela.
- d) %50eko hobaria azpiegituretako inbertsio pribatuak bultzatzeko planekin loturiko eraikuntza, instalazio edo obrentzat. Hondakin urak saneamendu sare orokorrera eramateko asmoz hobi septikoak kentzera zuzendutako lanei lehentasuna emango zaie.
- e) %50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitzetara lotutako eraikuntza, instalazio edo obretarako edota etxebizitza horiek etxebizitza sozial sailkapen badute.
- f) % 90eko hobaria eraikinetako edo aurretik dauden eraikuntzetako barrerak kentzea dakarren edozein eraikuntza, instalazio edo obraren kasuan, baita aurretik igogailurik ez duten eraikinetan igogailua jartzea



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

dakarren edozein eraikuntza, instalazio edo obraren kasuan ere. Aurretik dauden barrerak kentzea dakarren eraikuntza, instalazioa edo obra handiago baten barruan sartzen bada, igogailuko barrera arkitektonikoak edo instalazioa kentzea dakarren eraikuntzari, instalazioari edo obrari aplikatuko zaio hobaria soilik.

g) Ostalaritzako Ordenantzan ezarritako baldintzak betetzeko egindako eraikuntza, instalazio eta obretan 100eko 50eko hobaria.

h) 100eko 90eko hobaria, autokontsumorako eguzki-energiaren aprobetxamendu termikorako edo elektrikorako sistemak dituzten eraikuntzen, instalazioen edo obraren alde, baldin eta Eraikuntzaren Kode Etikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 E.D.n arauturiko energia aurrezteko neurriei lotuta ez badaude. 100eko 90eko hobaria aplikatzeko, beroa sortzeko instalazioetan kolektoreak jarri behar dira, administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak.

Aipatu sistemok txertatzeko egiten den eraikuntza, instalazio edo obra beste obra handiago baten zati denean, hobaria eguzki energia aprobetxatzeko sistemak txertatzeko eraikuntza, instalazio edo obrari dagokion zatiari bakarrik aplikatuko zaio, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betez.

2. Hobari hauek ezingo dira aldi berean aplikatu; hobaria jaso ahal izateko bi baldintza ematen badira, zenbateko handieneko hobaria ezarriko da zergapeko egitate bakar batentzat.

## **VII. SORTZAPENA**

### **11. artikulua.**

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan gertatuko da, lizentzia jaso ez bada ere.

## **VIII. KUDEAKETA**

### **12. artikulua.**

Nahitaezko lizentzia ematen denean behin-behineko likidazioa egingo da behin betiko likidazioaren kontura. Udalaren zerbitzu teknikoek Zerga Oinarria zehaztuko dute aurkeztutako proiektuaren arabera.

### **13. artikulua.**

Lizentzia eman ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da behin-behineko likidazioa berriz egiteko, aurrekontu aldatuak jatorrizkoa zenbateraino gaunditzen duen kontuan hartuta.

### **14. artikulua.**

1. Behin eraikuntza, instalazioa edo obra amaitutakoan, eta haren benetako kostua kontuan hartuta, Udal Administrazioak, administrazio-egiaztapen egokia egin ondoren, aldatu egingo du zerga oinarria, hala behar denean; behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion kopurua ordainarazi edo itzuliko dio.

2. Aurreko atalean ezarri denaren ondoreetarako, obra bukatu edo behin-behinean jaso eta hurrengo hilabetean inguruabar horren aitortpena aurkeztuko da, idatziz, Udal Administrazioak emango duen inprimakian. Obra zuzendu duen teknikariaren ziurtagiria erantsiko da, haren lanbide elkargoak ikus-onetsita, beharrezkoa izanez gero. Agiri horretan obraren kostu osoa ziurtatuko da.

### **15. artikulua.**

Zergaren likidazioari dagokionez, administrazioaren isiltasun positiboaren bidez ematen diren lizentzien ondorioak berariaz ematen diren lizentzienak eurak izango dira.

### **16. artikulua.**

Udalak autolikidazioko araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.

### **17. artikulua.**

Lizentziaren titularrak baimendu diren obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko du eta Udalak behin-behineko likidazioa itzuliko dio edo, bestela, osorik deuseztatuko du.

### **18. artikulua.**



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egin den likidazioa itzuli edo deuseztatu egingo du, salbu eta titularrak hura berritzea eskatu eta Udalak baimena ematen duenean.

**IX. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau 2003ko urriaren 15ean egindako Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean, eta behin-betiko 2004ko abenduaren 17an. Aldatu zen lehenengoz, behin betiko 2004ko abenduaren 7an. Bigarrenez, 2005eko abenduaren 23an. Hirugarrenz, 2006ko otsailaren 28an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, aldaketak behin betiko argitaratzen direnetik aginduko dutelarik, 2006ko apirilaren 27tik. Laugarrenz, 2006ko irailaren 27an egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2006ko azaroaren 21ean. Bosgarrenz, 2007ko urriaren 25ean egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2007ko abenduaren 21an. Seigarrenz, 2008ko urriaren 17an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2008ko abenduaren 4an. Zazpigarrenz, 2010eko uztailearen 29an egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2010eko urriaren 1ean.

Aldaketa hau 2011ko urriaren 14an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean, eta behin betiko 2011ko azaroaren 29an. 2012ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean.